

Goi-mailako joskintzako teknikak
Online ikastaro tutoretzaduna
Erdi-maila

Jantzigintza

2026.02.09 — 03.01

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA



2B

Erdi-mailako prestakuntza hau jantzigintzako ibilbideko ikastaroen programazioaren parte da, eta, zehazki, lehen online ikastaroaren programarekin jarraitzea planteatzen du.* Hala, aurreko formazioan landu zen koadrodun artilezko papar-hegaldun jakaren elementu jakin batzuk egitea proposatzen du, hau amaitzeko.

* Ikastaro hau gauzatu ahal izateako, nahitaezkoa da aurreko ikastaroa, jantzigintzako 2A online ikastaroa gauzatu izana.

Prestakuntza-ekimena sei modulutan antolatu da, eta oinarri ditu, batetik, ikus-entzunezko edukiak, egin beharreko ariketak azaltzeko eta nola egin ikasteko berariaz sortuak, eta, bestetik, zuzeneko online tutoretza-saioak, modulukoak, irakasleak parte-hartzaileen zalantza eta galderari erantzuteko.

Ikus-entzunezkoetan, etxearen berezko josteta- eta lisaketa-teknikak erakutsiko dira eta parte-hartzaileek, ariketa horien gaitasun praktikoak eskuratzeko, prozesuak errepikatu eta lanak praktikara eraman beharko dituzte. Ikus-entzunezkoak nahi bestetan ikusi ahalko dira ikastarorako ezarritako daten barruan, eta parte-hartzaileek aukera izango dute proposatutako ariketak komeni zaien moduan antolatzeko, zenbatetsitako dedikazioaren arabera.

Tutoretza-saioak, berriz, zuzenean egingo dira, Zoom plataformaren bidez, astearte eta ostegunetan, 18:00etan (gaztelaniaz) eta 19:00etan (ingelesez), 50 minutu inguruko iraupenarekin. Tutoretzak grabatu egingo dira eta grabazio horietarako sarbidea emango da tutoretza bakoitza ospatu den egunaren ondorengo egunean.

Egin beharreko ariketetan, jaka osatzeko helburuaz, arreta berezia jarri beharko da artile-ehun koadrodunaren tratamenduan; horretarako, jarraian adierazitako pauso guztiak bete beharko dira.

JANTZIGINTZA	Iraupena	Modalitatea
1. Hastapen-maila	20 ordu	Presentziala
2. Erdi-maila	50 ordu	Online
3. Maila aurreratua	35 ordu	Presentziala

I. ASTEA

Otsailak 09—15

1. Moduloa	Bizkarraldea josi eta muntatzea
Iraupena Tutoretza	4 ordu Otsailak 10
Edukia	Modulu honetan, jakaren bizkarraldea ebaki eta prestatuko da, gorputz osoa planteatuta uzteko. 1. Bizkarraldea markatu eta ebakitzea, koadroak bat etortzen direla zainduz 2. Artehuna ebakitzea 3. Sorbaldako aloza ixtea 4. Artehunaren aloza ixtea 5. Alboko jostura jostea 6. Artehunak lisatu eta jartzea 7. Sorbaldako jostura jostea 8. Behealdeia prestatzea

2. Moduloa	Lepoa prestatu eta itsastea
Iraupena Tutoretza	4 ordu Otsailak 12
Edukia	Jakaren gorputz osoa muntatu ondoren, lepoa ebaki eta josiko da. Normalean, lepoak zeharka ebakitzen dira, lisaburdinarekin forma erraz emateko, eta jakari itsastean pixka bat txertatu beharko da. Kasu honetan, ehun koadroduna denez, lepoko tapa oihal-bazterretik ebaki beharko da. 1. Lepoa markatu eta ebakitzea 2. Artehuna aplikatzea 3. Izurra pikatzea, lepoaren behealdeia eta oreka-lerroa 4. Artehuna doitu eta itsaspena prestatzea 5. Josturaren ertzak doitu eta alderantzikatzea 6. Lepoko tapa aplikatzea 7. Lepoa lisatu eta osatzea 8. Lepoa jakari itsastea 9. Taparen eta bistaren arteko juntura ixtea

II. ASTEA	Otsailak 16—22
3. Moduloa	Mahuka egokitzea eta mahukako piezak ebakitzea
Iraupena Tutoretza	3 ordu Otsailak 17
Edukia	Ariketa honetan, mahuka gorputzean egokitu beharko da, koadroak bat etortzen direla zaindiz. Prozesua egiteko, mahukaren piezak toile moduan egongo dira lehendabizi, eta erreferentziako lerroak markatuko dira. Helburua da koadroak bat datozela egiaztatzea, haien altuera bereziki, eta patroia ehunari egokitzea. Aurreikusitako pausoak: 1.1. Toile moduan dauden piezak behin-behinean muntatzea 1.2. Mahuka gorputzean muntatzea orratzak erabiliz 1.3. Egokitzeko markak eta txertaketak egiaztatzea 1.4. Mahukako piezak doitzea Bigarren ariketan, mahukaren piezak ehunean kokatuko dira, bat etortzeko ezarritako markak errespetatuz, eta beharrezkoak diren markak pasatuko dira. Ebaki ondoren, mahukak albaindu beharko dira, ebaketaren zehaztasuna egiaztatzeko. 2.1. Patroia ehunaren gainean kokatzea 2.2. Mahuka markatu eta ebakitzea, josteko marjina utzita 2.3. Koadroak bat etorraraztea 2.4. Mahukak albaintzeko proba egin eta bat datozela egiaztatzea 2.5. Mahuka jostea 2.6. Irekidurako jostura lisatzea goiko eta beheko piezetan
4. Moduloa	Mahukak muntatzea eta mahuka forratzea
Iraupena Tutoretza	6 ordu Otsailak 19
Edukia	Atal honetan, mahukaren bi josturak josiko dira: irekidurakoa eta ukondakoa. Fase honetan, funtsezkoa da behar bezala jostea, baina baita lisatzea ere, mahukaren erorkera ezin hobeia izan dadin. 1.1. Ukondoko jostura albaindu eta jostea 1.2. Ukondoko jostura lisatzea 1.3. Behealdean artehunak aplikatzea 1.4. Behealdearen bi aldeak jostea 1.5. Artehunari ezkutuko puntu bidez eustea 1.6. Behealdeko aldea jostea Mahuken behealdea ondo egokituta gera dadin, beharrezkoa da barnealdean artehuna aplikatzea, beheko aldeari sendotasuna eta pisua emateko; kasu honetan, artehuna zeharka aplikatuko da, izurra biribilduta gera dadin. Behealdea amaitu ondoren, mahukaren forrua jarri behar da. 2.1. Forrua markatu eta ebakitzea 2.2. Irekiduraren jostura jostea forruan 2.3. Forruaren josturak lisatzea 2.4. Forrua mahukari lotzea 2.5. Ukondoko jostura forratzea 2.6. Forruaren behealdea ixtea 2.7. Forruaren koroa prestatzea

III. ASTEA	Otsailak 23—Martxoak 01
5. Moduloa	Sorbaldakoa prestatzea eta mahuka muntatzea
Iraupena Tutoretza	4 ordu Otsailak 24
Edukia	Goi-mailako jantzigintzan, sorbaldakoa jantziaren premien arabera egin ohi dira. Balenciaga Etxean, sorbaldakoa oso garrantzitsuak ziren, bai sorbaldari altuera emateko, bai jantziaren goiko zati guztiaren bolumena sortzeko. Horregatik, sorbaldakoa nahiko zabalak dira, hala aurrerantz nola bizkarralderantz. 1.1. Artehunak ebakitzea 1.2. Artehunetan atzera-puntadak egitea 1.3. Sorbaldakoaren txantiloia ebakitzea 1.4. Lehenengo guata aplikatzea 1.5. Guata deskargatzea 1.6. Hurrengo guata-geruzak aplikatu eta deskargatzea 1.7. Sorbaldakoa pikatzea Balenciaga Etxean, mahukak jantziaren zatirik garrantzitsuenetako bat ziren. Ezin hobeto egokituta egoteaz gain, mugimendua ahalbidetu behar dute, jantzia eroso izan dadin. Mahukaren itsaspena da prozesu honen alderdirik korapilatsuen, eta batzuetan zuzenketa txikiak egin behar dira mahukaren goialdea ezin hobeto geratzeko. 2.1. Mahuka albaintzea 2.2. Mahukako txertaketa lisatzea 2.3. Mahukako josturak deskargatzea 2.4. Itsaspena lisatzea 2.5. Sorbaldakoa behin-behinean kokatzea 2.6. Sorbaldakoa gurutze moduko puntuaz lotzea 2.7. Guatazko txorizoa burualdean aplikatzea
6. moduloa	Forrua muntatzea
Iraupena Tutoretza	4 ordu Otsailak 26
Edukia	Goi-mailako jantzigintzako jantzien akabera forruarekin amaitzen da. Mahukei jakan muntatu aurretik jartzen zaie forrua, baina gorputza da azkena forratzen den atala. Normalean, forratzen hasi aurretik, jantzi osoa arreta handiz lisatzen da. Goi-mailako jantzigintzan, forratzeko prozesuaren zati handi bat eskuz egiten da, eta jostura batzuk soilik josten dira makinaz. 1. Forruaren piezak ehunean markatu eta ebakitzea 2. Alboetako josturak eta alozak albaindu eta jostea 3. Josturak lisatzea 4. Forrua bistari lotzea 5. Forrua alboetako josturei eta sorbaldari lotzea 6. Forruaren ingurua doitu eta prestatzea 7. Forruaren ingurua eskuz jostea 8. Mahukaren forrua eskuz jostea 9. Behealdea doitu eta forratzea 10. Bizkarraldearen erdialdea lotzea

Javier Martín

Ávilan jaio zen, baina Madrilén bizi da. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991. urtean, modako goi-mailako diseinatzaile gisa. Prestakuntza-urteetan, Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen. Bi emakume horiek hiriburuko EISA tailerreko langileak ziren, baita tailerreko buru Felisa Irigoyenen eskuineko eskuak ere. Bi emakume horiengandik Getariako moda-sortzailearen jostintza-teknika espezifikoa ikasi zuten eta, ondoren, bere diseinuak zehaztu dituzten bolumenen eraikuntzari buruzko ezagutza ere jaso zuen.

Hamar urtean Sybillaren taldeko kidea izan zen, 2005era arte. Urte horretan, goi-mailako jostintzara bideratutako bere marka propioa sortzea erabaki zuen, Nihil Obstat izenekoa. Diseinatzaile gisa eta beste sortzaile batzuekin lankidetzan aritzen da; esaterako, Carmen March, Jesús del Pozo edo Joaquín Trías sortzaileekin. Azken hori Balenciaga etxeko maniki baten biloba da. Horiei guztiei aholkularitza teknika ematen die. 2012tik 2019ra, DELPOZO marka espainiarrerako egiten du lan. Bertan, bildumaren zati baten bolumenak modelatu eta garatzen ditu, eta nazioartean sona duten luxuzko prêt-à-porter jantziak egiten ditu.

Irakaskuntzan ere aritzen da eta Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioi hezkuntza-proiektuetan parte hartu du. Horrez gain, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Centro Superior de Diseño de Modan, Diseinuaren Europako Institutuan, eta Granadako Estación Diseño izeneko eskolan diseinuari eta modelatzeari buruzko ikastaroak eman ditu, besteak beste. 2015. urteaz geroztik Cristóbal Balenciaga Museoaren hezkuntza programan parte hartzen du, Balenciaga Etxeko tailerretan erabilitako jostintza teknikak bildu eta helaraziz.



Datak	2026ko otsailaren 9tik martxoaren 1era. Aurreikusitako dedikazioa, 25 ordu.
Ordutegia	Parte-hartzaile bakoitzak aukera izango du jarduerari eskaini beharreko denboraren estimazioaren arabera antolatzeko ordutegia, betiere, modulu bakoitzerako finkatutako daten barruan. Tutoretzako saioak, bestalde, astearte eta ostegunetan izango dira, arratsalde (Espainiako ordua), eta 50 minutu inguruko iraupena izango dute. Ikastaroaren amaieran, martxoaren 3an (asteartea) eta 5ean (osteguna), azken tutoretza saio bat egingo da, gauzatutako lanak irakaslearekin batera aztertzeko eta prozesua bateratzeko. Azken saio horretarako, gehienez 5-6 pertsonako talde murriztuak antolatuko dira, eta esleitutako data eta ordu espezifikoak ikastaroa hasi ondoren jakinaraziko dira.
Hizkuntza	Ikus-entzunezkoak gaztelaniaz daude. Eta tutoretzak bi talde eta hizkuntza desberdinetan egingo dira, gaztelaniaz eta ingelesez.
Parte-hartzaileak	Moda Diseinuko, Patroigintzako eta/edo Jantzigintzako ikasle edo tituludunak, modaren arloko profesionalak, eta goi-mailako jantzigintzako tekniketan trebatu nahi duten pertsona guztiak. Zehazki, jantzigintzako 2A online ikastaroa burutu duten pertsonei zuzendua. 30 lagunek parte hartu ahal izango dute jardueran, gehienez. Parte-hartzaileak aukeratzeko, eskatutako dokumentazioa hartuko da oinarri, eta abenduaren 18tik aurrera jakinaraziko da plazen esleipena.
Baldintzak	Interesdunek jostintzako teknikei buruzko ezagutzak izan eta egiaztatu beharko dituzte, eta jantzi bat ebaki, albaindu eta prestatzeko gai izan beharko dute. Ezinbestekoa da jantzigintzako 2A on-line ikastaroa aurretiaz burutu izana.
Izen-ematea	Izena emateko epea zabalik izango da ikastaroa argitaratzen den egunetik, abenduaren 1etik alegia, abenduaren 15era (egun hori barne, 14:00ak arte), eta izena emateko online formularioa bete behar dute interesdunek. Curriculum vitae-a aurkeztu behar da, modaren esparruko prestakuntzaren eta esperientziaren berri emanez, baita interesdunaren motibazioari buruzko gutun bat ere, aditzera emanez jardueran parte hartzeko duen interesa eta haren edukiarekiko duen lotura. Osorik aurkezten ez diren eta epea kanpo aurkezten diren eskariak ez dira kontuan hartuko.

Prezioa	340 €. Prezioak materialak eta hauek penintsulara bidaltzea barne hartzen ditu, ariketak egiteko ezinbestekoak. Beharrezkoen sorta bat prestatuko du Museoak parte-hartzaile bakoitzarentzat, artilezko ehunarekin eta artehunarekin, barne dela patroia ere; material sorta hori adierazitako helbidera igorriko zaie parte-hartzaileei, prestakuntza hasiera data baino lehen. Penintsulatik kanpo bizi diren parte-hartzaileek, matrikulaz gain, bidalketaren kostua ere beren gain hartu beharko dute, destinoaren arabera. Hona hemen kostu osagarri horiek: — Balearrak 18€ — Kanariak 30€ Zerrendatik kanpo EBko eremuetan bizi diren parte-hartzaileek, eta, era berean, EBtik kanpo bizi diren pertsonak, Museoak irizpideak eta betekizunak emango dizkie beren herrialdeetan beharrezko generoa eskuratu ahal izateko, eta, kasu horretan, matrikularen kostua 320 € izango da. Bestalde, parte-hartzaileek josteko oinarritzko lanabesak eduki beharko dituzte (jostorratzak, orratz burudunak, zinta metrikoa, marka-harria, etab.), baita eskudra, josteko makina, lisaburdina, lisatzeko zapia, lisatzeko kuxina, eta manikia ere, eta ordenagailua edo/eta Tableta, eta Interneteko konexioa, ikus-entzunezkoak ikusteko eta online tutoretzak egiteko. Cristóbal Balenciaga fundazioak jaso beharreko matrikularen prezioa lehen aipatutakoa da, bankuko gastu guztiak parte-hartzaileak bere gain onartuko ditu. «Museoko lagunei» dagokien deskontua matrikula egiteko unean gutxienez bi urteko antzintasuna duten lagunei soilik dagokie.
Plaza mugatuak/Aldez aurretik izena eman behar da	Parte-hartzaileen gutxieneko kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan. Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztatzea emango da.
Harremanetarako	T +34 943 004 777 info@fbalenciaga.com

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@Cristóbalbalenciagamuseoa.com
www.Cristóbalbalenciagamuseoa.com

B

